

Proiektuaren deskribapena

Gure enpresa automobilen pertsonalizazio eta adaptaziora dedikatzen da. Horren bidez auto bakoitza berezia egiten dugu, bezeroak nahi duen gustura. Guk egiten ditugun aldaketak ez dira bakarrik estetikoak baizik eta pertsona bakoitzarentzako egokitu egiten ditugu kotxeak. Gure enpresak hainbat bezero mota ditu eta proiektu desberdinak egiten ditu. Alde batetik ezintasunak dituzten pertsonentzako adaptatutako autoak egiten ditu eta, bestetik, autoa tuneatu nahi duten gazteentzako edo pertsonentzako proiektuak egiten ditugu. Horrela nahi duten kotxea sortzen dute gure laguntzarekin. Tuneaketaren barruan autoa guztiz aldatzen dugu bezeroaren gustura. Kanpo aldea nahiz barrukoa aldatu dezakegu. Gure helburua bezeroak pozik egotea haien autoekin baita ezintasunak dituzten pertsonen askatasun aukerak ematea da.

Imaginatuz gure autoa guztiz zure nahi duzun estiloaren isla bihurtzen dela. Aldaketa ikusgarriak, soinu sistema zoragarria eta barrualde perfektua, zure gustu guztietara egokituta. Hau da guk egiten duguna, eta egiten dugun lana aurkitzea gaur egungo arazo bat da. Honekin ez dugu bakarrik bilatzen aldaketa estetiko bat, baizik eta zure mugikortasuna eta askatasuna, eta hori gure lehentasuna da. Guk bilatzen duguna ezintasun bat duten pertsonen auto erosoago eta seguruagoa egitea da eta gure teknologia aurreratu erabiliz zure bizi-kalitatea hobetzen dugu. Ez da bakarrik edertasunari buruzko kontu bat, baizik eta segurtasuna eta erosotasunari buruzkoa ere.